

## ARTILEAREN BALORIZAZIOA

Urkometik artilea balorean jartzeko konpromisoarekin jarraitzen dugu. Ekainaren 7an, Madrilen Slow Fashion Next "Moda jasangarriaren 11. Jardunaldia" ospatu zen eta bertako "Artilea, hobekien ekodiseinatutako zuntza" mahai inguruan parte hartu genuen. Ardi Beltza bezalako beste proiektuetan ere parte hartzen ari gara.



## HAZINNOVA:

Laguntza hau 5 langile edo gehiago dituzten ETE-ei zuzenduta dago eta aholkularitzako 50 ordu eskaintzen ditu doan.

Urkome, Hazinnova agentea da eta prozesu osoan laguntzen du.

Informazio gehiago: [www.urbkome.eus](http://www.urbkome.eus)



## LEADER ETA EREIN LAGUNTZAK 2024

2024an Leader laguntzetara proiektuak aurkezteko epea ekainaren 7tik 28ra izan da.

Gure eskualdetik 7 proiektu aurkeztu dira.

2024an Erein laguntzetara proiektuak aurkezteko epea apirilaren 3tik maiatzaren 2ra izan da.

Gure eskualdetik 6 proiektu aurkeztu dira.



# ESKUALDEKO LANDA GARAPEN PROGRAMA:

Aurten, 2024-2027 epealdirako, eskualdeko Landa Garapen programa berria diseinatuko da. Eragile guztion partehartzea oso garrantzitsua izango da.



## TREBATU:



Lehen sektorean beren proiektu profesionala garatzea nahi duten ekintzaileei zuzenduta dago. Ekimen horri esker, ekintzaileak (trebalariak) bere ideia edota proiektua frogatu eta garatzeko aukera izango du. Horretarako nekazaritzan lanean aritzeko gunek (trebatze gunek) eskainiko zaizkio eta bertan beharrezko formakuntza eta aholkularitza jasoko du. Horri esker, Gipuzkoako lehen sektoreak duen errelebo faltari aurre egin nahi zaio eta ondorioz tokiko elikagai ekoizpena bultzatu.

Informazio gehiago: [www.landaola.eus](http://www.landaola.eus)

## MENEKO ETA MENDINET ASANBLEAK:

Ekainean, Meneko eta Mendinet-eko asanbleak ospatu dira.



[Urkome Urola Kostako Lge](https://www.facebook.com/urkome)



[urkome](https://www.youtube.com/urkome)



[urkome@urkome.eus](mailto:urkome@urkome.eus)



[@urolakosta](https://twitter.com/urolakosta)



[@urkome\\_lge](https://www.instagram.com/urkome_lge)



[www.urkome.eus](http://www.urkome.eus)



943816500

Plaza Nagusia, 11-1.solairua, 5.bulegoa  
20730, Azpeitia